
Tesiko bosgarren kapituluaren historia txikia

(«Zer arraio idatzi dok zorioneko bosgarren kapitulu horretan?!»)

JESUS MARI MAKAZAGA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Pello Salaburu irakasle, lankide eta adiskidearen erretiroa dela eta, omenaldi modura, erreko-nozimenduzko hitz batzuk juntatu nahi nituzke. Urte mordo bat bada elkar ezagutzen dugula, eta, halako batean, erretiroa hartzeko ordua etorri zaio, ondo irabazitako erretiroa hartzeko ordua.

Pello irakasle

1986. urtea izango zen Pello ezagutu nuenean: irakasle izan nuen, Euskal Filologia karrerako azken urteetan. Sintaxia irakasten zigun, mugimendu generatibistaren ikuspegitik, eta, gaia hain abstraktua eta berezia izanik, beti iruditu izan zait azalpen ezin argiagoak ematen zizkigula; gaiak eta edukiak oso txukun ordenatuta eskaintzen zizkigun, eta atsegina eta erakargarria egiten zitzaidan zenbaitentzat hain gai lehorra izan zitekeenaren irakaskuntza. Beti, gainera, pazientzia handiz eta patxadaz ematen zizkigun eskolak.

Pello Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko kide

Handik urte gutxira, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordean bekadun-lanetan sartu nintze-nean egin nuen topo berriz Pelloekin. Artean ez zen batzordeburu (Patxi Altuna zen garai artan, oker ez banago), baina batzordearen sortzaileetariko bat zen, eta ni, batzordean sartu berri zen bekadun lotsati bat. Aukera polita izan zen niretzat Pelloren ez ezik batzordekide guztien jakintza-ren berri izatea, lehen eskutik gainera: oso aberasgarriak izan dira urte hauek guztiak niretzat, bertatik bertara izan baitut aukera batzordekide jakintsuen ezagutza handi hartatik edateko. Batzorde horretan hainbeste urte egin baldin baditut, han ikusi dudana adiskidantza-giro bikainagatik ere badela aitortu behar dut. Ni bezalako gazte sartu berri hark beti izan du lankidetzaren eta konfiantza-giro ezin hobea batzordean, eta ez du inongo kexurik. Alderantziz, den-dena aldekoa iruditu izan zait beti: giro akademiko eta adiskidantzazko ezin egokiagoa.

Pello nire doktoretza-tesiaren zuzendari

Doktoretza-tesia Elgoibarko ahozko euskararen gainean egiteko asmoa nuen, eta horretarako, Pellori berari eskatu nion zuzendari izateko, harekin neukan konfiantzagatik, haren ezagutzagatik eta Baztango euskalkiari buruz egin zuen tesi bikainagatik. Baiezkoa eman zidan, eta hor ere beste lotura bat sortu zen gure artean. Lehenbiziko urteetan, irakaskuntzako kontuak zirela eta, batzordeko lanak zirela eta, ez zuen aurrera egin tesiak; baina behin, halako batean, gaiari serio heldu nionetik, Pelloren erantzuna bikaina izan zen beti: galdera bat egiten nionean, materiala pasatzen nionean berak gainbegiratzeko eta iritzia emateko, berehala iristen zen erantzuna. Berak seguru ezin duela gauza bera esan nigatek, hark eskatutakoei ematen nion erantzuna askotan luzatu egiten baitzen. Baina inoiz ez zuen pazientzia galtzen: «egingo du halako batean» pentsatuko zuen seguruenik, eta itxoiten geratzen zen, eserita badaezpada. Askatasun handia ematen zidan, eta, bere iritzia ematearekin batera, ondo onartzen zuen nirea ere, baita biak bat ez zetozen kasuetan ere.

Pello lankide

Sailkide izan gara Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologia sailean aurrena, eta Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailean ondoren. Ni neu zerbitzu-betekizunetan nabil azken urte luzeetan UPV/EHUko Euskara Zerbitzuan, eta han ere, 2011tik aurrera (ni zerbitzuburu naizenetik) paraleloki zuzendu ditugu hark Euskara Institutua eta nik Euskara Zerbitzua, konfiantza-giroan, lankidetza onean eta era ahalik eta koordinatuenean betiere.

Pello adiskide

Urte hauetan guztietan, errespetuzkoa eta konfiantzazkoa izan da beti elkarrekiko harremana; hainbeste gauza partekatu ondoren, adiskidantza-harreman on bat izatera iritsi gara, eta hala jarraituko dugu etorkizunean ere.

Nire doktoretza-tesia eta bosgarren kapitulua

Herri jakin bateko hizkerak aztertzeke dialektologiako ohiko lan monografikoetan, hizkuntzaren arlo hauek izan ohi dira aztergai normalean: fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia, sintaxia eta hiztegia.

Horietatik aparte, berri-emaileengandik jasotako testuak ere transkribatu izan dira, hizkeraren erakusgarri orokorrako bat emateko, eta, berri-emaileen munduaren eta mundu-ikuskeraren testigantza bat finkatuta, utziz, lanari balio etnologiko erantsi bat emateko.

Horiek ere egin nituen nire tesian: testu sorta oparo bat transkribatu nuen berri-emaileen bizitzaren alderdien arabera sailkatuta: eskola-kontuak, umetako jolasak, neskametza, soldadutza, Gerra Zibila, ogibideak, baserriko lanak, jaiak, erromeriak eta bestelako ospakizunak, hizkerari buruzko testuak (oharmenezko dialektologiaren arloan), eta abar. Zentzuzko aholku batzuk salbuetsita, arazorik ez halakoetan ere tesi-zuzendariaren partetik horiek ere sartzeko.

Dialektologiaren arloan ere, ekarpen bat egin nahi izan nuen tesian: euskalkien eta azpieuskalkien azterketan pauso bat eman nahi izan nuen, Mendebaleko eta Erdialdeko hizkeren arteko muga horretan, argi pixka bat egin inguruko hizkerekiko konparazio kualitatiboa eta kuantitatiboa eginez lanaren amaieran.

Ondo joan ziren kontu horiek, oro har, tesiaren defentsaren egunean. Izan ziren ongi arrazoitutako oharrek ere, noski, asko estimatu eta aintzat hartu ditudanak ondorengo bertsioetan; ohar xebreak ere izan ziren. Bat aipatuko nuke, halako tentsio-unean ere barrea eragin zidalako: «Abarka asko, apreta¹ gutxi» esamoldearen bidez laburbildu zuen Patxi Goenaga epaimahaikideak bere kritika, gaztelaniazko «El que mucho abarca poco aprieta» esamoldearen egokitzapen zoragarriaren bidez. Tesian gauza asko sartu nahi izan nuelako, gai batzuetan gehiegi sakontzera ez nintzela iritsi leporatu zidan; eta ados neu ere. Gero etorri zen Orreaga Ibarra epaimahaikidea nik aurkeztu nuenaz gainera ia-ia beste tesi bat egiteko eskatzen zidana, alegia belaunaldi gazteagoen euskara ere ikertzea eta bi belaunaldien arteko euskarak konparatzea: epaimahaikideak ez zetozen bat, eta, jakina, ni erdibidean, poztxo horrekin: ezin, ba, biei kasu egin, esaten zituztenak nire ustez kontraesanean zeudenez gero.

Idatziz eman zizkidan Miren Azkaratek bere jarduneko hitzak, eta biziki eskertzen diot. Ez dut esango epaimahaikide guztien iritzien adierazle denik Mirenen, baina guztienak ez ziren urrun izan, eta ekar ditzaun hona Mirenen hitz batzuk, haren baimenarekin:

«Oso argi adierazten duzu atal bakoitzean, Fonologian, Izenaren morfologian, aditzean... zer egin duzun eta zer hartu duzun oinarritzat. Alde honetatik, sintaxiaren atalean esaten duzun bezala, dialektologian ohikoak izan diren aztergaietatik «haruntzago» joan zara. Egia da oso aberasgarria dela bai Esaera, Esapide eta Interjekzioen bilduma, eta zer esanik ez Hiztegiarena (kontuan izanik, gainera, zeuk diozun bezala, zenbat diren inguruko hizkerez ondutako hiztegiak).»

Atal horietan, zehaztasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, era honetako lan monografikoetan egin ohi diren kontuak aztertu nituen.

Berri-emaileen partetik jasotako ahozko testuen azterketa egiten ari nintzela, haien ahozko jarduneko honako ezaugarri hau fonologiaren atalean sartzen nuen, horrako beste hori sintaxiaren *zakuan*, harako hura aditzaren morfologiarenean, eta abar eta abar.

Hala ere, baziren tarteka-tarteka sailkapen zurrin horretan (fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia, sintaxia eta hiztegia) lekurik ez zuten ezaugarri batzuk, kokapen egokirik ez zuten hizkuntza-item batzuk. Betidanik izan dut Diogenes sindrome ikutu bat, ustez ez-morbidoa, eta badaezpada ere halako ezaugarriak gorde egiten nituen, «Bestelakoak» edo «Saski-naski» (ez naiz ondo gogoratzen) izeneko *zaku* sortu berri batean. Beste ataletan leku garbirik ikusten ez nuen aldietan, zaku berri horretan sartzen nituen nire arreta erakartzen zuten hizkuntza-ezaugarri berezi horiek.

Zaku berri hori gero eta handiagoa eginez joan zen; ahal nuenean, garbi samar ikusten nuen kontzeptua azpialat berriak sortu, eta haiek elikatzen nituen poliki-poliki. Guztiz gozagarria egiten zitzaidan zaku berri hori elikatzeke lana, eta horrek ere laguntzen zuen, ondo lagundu ere, doktoretza-tesia bezalako arnas luzeko lan batean interesa eta arreta ez galtzen.

¹ Zenbait hizkeratan, *abarketa* eta *espartina* hitzen ordaina da.

Tesiaren lehenbiziko helburuei uko egin gabe (hizkera jakin baten ohiko ezaugarritzea eta haren kokapen dialektala egitea), helburu berri baten atea ireki zitzaizkidan aurrez aurre: neurri batean hizkera horren ezaugarritzea egiten ari nintzen atal berriarekin ere, baina ikusten nuen orokorragoa zen zerbait jasotzen ari nintzela, eta argi neukan ez niola ezikusiarrena egin nahi.

Iruditzen zitzaidan jasotzen ari nintzen ezaugarri horietan zegoela gure guraso eta aitona-amonon euskararen sena, haien euskararen adierazgarritasuna, komunikagarritasuna eta poesia, nolabait esateko. Ezaugarri horiei esker da haien euskara hain komunikagarria, hain adierazgarria, hain polita eta, azken finean, hain eraginkorra.

Zer esanik ez, Pellori aipatu zaku berri honen kontua, eta, «aurrera, bai», «interesgarria oso»² bat haren erantzuna. Ados hura ere gai honen garrantziarekin. Pozarren ni: lan gozagarria egiten ari nintzen, eta banuen *nagusiaren* oniritzia, gainera. Gure artean esaten den bezala, *Gustoko mendixan, aldaparik ez*.

Tesiko beste atal guztiak adinakoa edo, kasu askotan, handiagoa izatera iritsi zen, bolumenari dagokionez, atal berri hau. Bazegoen, bai, zer hustua gure berri-emaileen ahozko testu ezin interresgarriago eta aberatsagoetatik. Eta gero esango dute zenbaitek, edo berri-emaileek berek, edo haietako batzuek behintzat, gure euskara ez dela ona, Azkoiti aldekoa edo, areago, Tolosa aldekoa dela ona, garbia, eta abar. Bai zera! Edo bai, haiek onak dira, baina, Erdialdeko euskara horiei ezer kendu gabe, eman diezaiozun geureari dagokion balioa, handia da eta.³

Gai horrekin nuen lehenbiziko helburua beteta zegoen: jasoak nituen nire ustez pertinentek ziren hainbat ezaugarri, eta hor geratuko ziren jasota behintzat, hobeto edo okerrago sailkatuta eta azalduta, baina jasota behintzat. Eguneroko jarduneko elkarrizketetan, ahozko jardunean, berri-emaileek darabiltzaten esaerak, esapide eginak, interjekzioak eta hitz adierazgarriak, harridurazkoak; guztiak hizkuntzaren ahozko erabileraren bereizgarri, hizkuntzaren bizigarri, freskagarri eta, zergatik ez esan, edergarri (metafora eta baliabide literarioz josiak haietako asko).

Izan ere, garai bateko euskaldunen bizimodua, pentsaera, sentitzeko eta hitz egiteko era badoakigula ikusita, horien guztien ispilu diren hizkuntza-baliabideak bildu nahi nituen, ahalik eta era sistematikoenean, ordenatuenean. Horietako asko hiztegiaren atalean sar zitezkeen, baina hiztegiaren *zaku* handiaren hurrenkera alfabetiko eta «arbitrario» horretan, iruditzen zitzaidan «galdu»-edo egiten zirela altxor horiek, hainbeste sarrera eta azpisarreraren artean. Horregatik ekarri nituen zaku berrira, irizpide tematiko-kontzeptualen bidez ikusgarriago egiten nituelakoan.

Bihar-etziko euskaldun gazteei, haien euskarari ekarpen bat egingo niela uste nuen ahozko jardunaren baliabide haiek bilduta: ulerterrazagoak, sinpleagoak, naturalagoak eta adierazgarriagoak izango dira haien testuak, idatzizkoak nahiz ahozkoak, gure aitona-amonon erabiltzen zituzten baliabideen laguntzarekin.

² Beharbada, nire atzerapenetara hain ohitua, era honetako jarraipenen batekin: «... baina ez gehiegi luzatu; laster bukatzea komeni zaik».

³ Bada gure berri-emaileen artean konplexu bat, darabilten euskarari dagokiona: diote ez dela garbia, nahaste handia daukala («Bizkai aldeko berbak eta Gipuzkoa aldekoak, nahasketa haundixa dagok»; berbak ... eta ezaugarriak, gaineratuko nuke nik), eta garbiagoa dela Erdialdera egiten duena, Azkoiti edo Tolosa aldera. Bestalde, bada gure inguru hurbilean, Eibarren, Sorluzen, Elgoibarren... , hiztegi kontuetan mailegutzarako, erdarakadetarako joera markatu samar bat (beti aipatu izan diren *kaballua* eta *bentania*, horren adierazgarri), gure euskararen pertzepzioa iluntzen eta estigmatizatzen duena. Ez dira ohartzen, ordea, darabilten euskara zoragarria dela, haien helburu komunikatiboetarako tresna ondo zorroztua dutela, eta eraginkorra, dinamikoa eta ederra dela; beste leku hizkeraz garbiago batean erabiltzen dena bezain ederra, ederragoa ez bada.

Izan ere, lagunarteko erregistroan, batez ere belaunaldi gazteagoen ahozko jardunean, hutsuneak nabaritzen nituen. Hizkera mota horrek behar-beharrezko duen adierazgarritasuna eta indarra bilatzeko, gehiegixotan doaz gure gazteak erdaren iturrietara, euskaraz aurkitzen ez duten ur freskoaren bila. Izan ere, ahozko euskararen transmisioan, hutsuneak izan dira azken urteotan, eta gazteek ez dute, oro har, Elgoibar bezalako herri askotan behintzat, horren berri zehatzegirik izan, gero beren eguneroko lagunarteko giroan erabiltzeko. Erdararen kasuan guztiz bestelakoa da egoera gure herrian, oro har, osasuntsuagoa; gure herriko euskararen kasuan, herriko gazteen arteko elkarrizketei zaharren elkarrizketen naturaltasuna, adierazgarritasuna falta zaie.

Gaur egun, Euskaltzaindiaren arauen arabeko euskara nahiko ondo idazten eta erabiltzen dute gazteek, oro har. Euskararen gramatika ere ondo ezagutzen dute jeneralean; baina euskara egokiaren eta eraginkorraren kontuan zenbaitetan herren dabilta, nire ustez. Kanean adin batetik beherakoek darabilten euskara ere askotan neutroa da, aukeran; zenbaitetan ez du indarririk, gatz eta piperrik, eraginkortasunik mintzakidearengan bilatu nahi den erreakzioa lortzeko. Argi dago azken urteetako transmisioak eta irakaskuntzak zerbaitetan huts egin duela: auzi honi dagokionez behintzat, nabarmena da ahozkoasuna ez dela behar bezala landu. Hori garatzeak asko lagunduko liguke hizkuntza era naturalagoan eta adierazgarriagoan erabiltzen.

Hor ikusten dut nik gaur egungo euskararen hutsune larrienetako bat: ahozko lagun arteko jardunean erabiltzeko tresna egokia falta da askotan. Kezka hori izanik, gure herriko (eta inguruetako) zaharrek (errespeturik handienarekin erabiltzen dut berba hori) darabilten euskararen sakondu nahi izan dut, euskara horretatik atera daitekeen etekinik oparoena atera ahal izateko: gazteen ahozko jarduna naturaltasunez eta adierazgarritasunez hornitu, idatzizko testuak ere eraginkorrago egiteko hobekuntza-bide batzuk aztertu, eta abar.

Hor kokatzen dut tesiko bosgarren kapitulu honekin egin nahi izan dudana ekarpena. Elgoibarko ahozko jarduneko adibide batzuk bildu nahi izan ditut, adineko hiztunek ahozko jardunean darabiltzaten baliabide estilistiko edo poetiko zenbaiten erakusgarri gisa⁴. Egutero-egutero darabilgun euskararen adierazgarritasunaren eta eraginkortasunaren mesedetan, betiere.

Gure ahozko tradizioetik elikatu nahi nuen; handik bildu nahi nituen hainbat adibide. Ikusten bainuen euskararen hobekuntza-bideetako bat tradizio hori lantzea dela; ez bakarria, sortu ere egin behar baitute hiztunek. Edonola ere, sormena eta berrikuntzak tradizioa ezagututa egitea litzateke egokiena: tradizioan dugunetik hartu (erabil dezakegun neurrian), eta sortu (tradizioan ez duguna edo zaharkitua geratu dena), baina ez sortzen jardun tradizioan baduguna eta erabil dezakeguna.

Adierazgarritasunaren bila aritu nintzen, ahozko hizkerak eskaintzen dizkigun baliabide horien erakusgarrien bila: alde horretatik ikusten nion nik interesa *zaku* berri honi, ahozko hizkeraren baliabide garrantzitsu batzuen bilduma den aldetik; eta ez hainbeste dialektologiaren aldetik.

Nik, aditu izan gabe, eman nitzakeen argibideei baino garrantzi handiagoa eman nahi nien adibideei berei; adibide kopuru zabala eskaini nuen, eta haietan sumatu uste nituen joerak azaldu nituen. Pozik nengoke helburu horretan behintzat asmatu badut.

⁴ *Poetiko* hitzaren zentzurik zabalenean, Joxerra Garziak (1998) dioen bezala, «gauzak modu itxuraz berri eta berezian» adieraztearen zentzuan; hain bereak dituen hitzak hona ekarriz, «esana era bakan-betean» esatea da harentzat poesia, bere zentzurik zabalenean. Esanaren bete-bakantasun irudipen hori gugan (mintzakidearengan, mezu-hartzailearengan) sortzeko amarruak dira, haren esanetan, literatura-baliabideak, baliabide poetikoak.

Arloko adituek hizkera kolokialaren edo lagunartekoaren definizio eta ezaugarritzat aipatzen zituztenak ere bildu nituen kapituluaren sarreran.

Arlo honetan aitzindarietako bat dugun W. Beinhauer-ek gaztelania kolokialari buruzko definizio hau ematen du:

«El habla tal como brota, natural y espontáneamente en la conversación diaria, a diferencia de las manifestaciones lingüísticas conscientemente formuladas, y por tanto más cerebrales, de oradores, predicadores, abogados, conferenciantes, etc., o las artísticamente moldeadas y engalanadas de escritores, periodistas o poetas.»

Berezkotasuna, naturaltasuna eta planifikazio falta dira definizio horretatik atera daitezkeen hizkera kolokialaren ezaugarriak.

Hona M.C. Lassalettak dioena:

«El lenguaje coloquial es una fracción o nivel de lenguaje total que se destaca por su carácter pintoresco reflejado en multitud de expresiones y vocablos intraducibles a otros idiomas, fundados muchas veces en alusiones metafóricas y que posee una gracia, viveza, gran espontaneidad, concreción y expresividad que lo distinguen de otros niveles.»

Hor aipatu direnetako asko aurkitzen dira nik zaku berrian jasotako ezaugarrietan: esapide berezi itzulezinak eta esapide metaforikoak; esaeren eta esapideen atalean ditugu horiek, eguneroko bizitzako metafora eta konparazio bidez osatuak.

Lagunarteko hizketa deskribatzen duten adituek honako ezaugarri hauek aipatzen dituzte (ikus Briz): orainaldian gertatua, ahozkoa, interaktiboa, berehalakoa, informala, berezkoa, gai ez-berezituak tratatzen dituena, gutxienez bi hiztunen artean gertatua, prestatu gabea, berdinen artean gertatua, eta abar.

Jardun lagunartekoaren konstanteak ere aipatzen ditu Brizek:

- Sintaxi-egitura parataktikoak.
- Egitura parafrastikoak erabiltzea.
- Geldialdien ugaritasuna.
- Erreduantzien erabilera joria.
- Enfasiak leku nabarmena.
- Elipsia nagusi.
- Anakoluto ugari agertzea.
- Estilo zuzenaren erabilera.
- Hitz-hurrenkera pragmatikaren araberakoa.
- Mintzakideak osatu behar dituen enuntziatu bertan behera utziak.
- Entonazio goranzkoak, adierazgarriak.
- Egitura indargarriak (hiperbolea).
- Aukera lexiko urria.
- Parahizkuntzak duen garrantzia.
- ...

Behin ezaugarri horien bilketa eta nolabaiteko sailkapen-lana eginda, emaitzak ezagutzea geratzen zen, epaimahaikideen ahotik.

Pozgarria izan zen, adibidez, Miren Azkaratek esandakoa:

«Dialektologian ohikoak izan diren aztergaietatik «haruntzago» joan zara (...) Haruntzago joan izan horrek berarekin dakar emaitzen erabilgarritasuna, bai gramatikaren ezagutza, bai dialektologian, baina, batez ere, ahozko hizkuntzaren eta herriko hizkuntzaren ezagutza. Ahozkotasunak eta gaurko gazteen komunikaziorako ahalmen kamutsaz kezkatuak dabiltzanak (gabiltzanok) benetan eskertuko dute esapideetan-eta egindako bilduma. Gai labainkorra da, berak bakarrik tesi bat osatzeko beste emango lukeena (sailkapen irizpideetatik hasita), baina bilduma hor dago. Hortik aurrera, gehiago sakondu nahi duenak, hortxe du lehengaia.»

Eta Miren bezala, gainerako epaimahaikide guzti-guztiek (Orreaga Ibarrek, Xarles Bidegainek, Patxi Goenagak eta Beñat Oihartzabalek) aipatu zuten bosgarren kapitulua, era nabarmenean aipatu ere. Ohikoa den bezala, bakoitzak bere arloan egin zituen ekarpen jorienak eta lanaren eragozpen handienak (Goenagak eta Oihartzabalek syntaxian, Azkaratek morfologian, Bidegainek hiztegian eta Ibarrek dialektologian eta hizkera lagunartekoan), baina denak gelditu ziren, denbora luzea eskainiz gainera, tesiaren bosgarren kapitulu hori iruzkintzen. Nobedadea izan zen haientzat halako lan batean gai hori sartzea: hala aitortu zuten; ikusten zuten hor erabilgarria izan zitekeen material bat, nahiz beharbada beste era batera sailkatuko zuten...; denek izan zuten hizpide bosgarren kapitulu hori⁵.

Eta ni pozarren, nire ekarpenak berritasuna ekarri zuelako, eta horrekin epaimahaikideen arreta eskuratu nuelako. Ordura arte ez nengoen lasai, baina hortik aurrera zertxobait lasaitu nintzen.

Defentsa-lana amaitu eta gero ere, aretotik kanpo, jarraitzen genuen bosgarren kapituluaren kontuarekin. Dirudenez, ez zen nire inpresioa bakarrik epaimahaikideen arreta eskuratu izana: Koldo Zuazo adiskidearen lehenbiziko hitzak hauek izan ziren: «Baina zer arraio idatzi dok zorioneko bosgarren kapitulu horretan?!». Jose Luis Ormaetxea *Txipik* ere berdintsu: hark ezagutzen zuen, Koldok bezala, nire tesia, eta aldeztatik aurretik zoriondu ninduen kapitulu berri hori sartzeagatik. Koldok ere bai bere garaian, baina, jakina, tesi-defentsaren egunean ez zen gogoratzen zer zerbaki zeukan kapituluak.

Ez zen nire inpresioa bakarrik, beraz: entzuleena ere bazen.

Zer idatzi nuen? Koldoren galderari erantzunez, hona hemen ezaugarri horien erakusgarri labur-txiki bat beren adibide eta guzti (halaxe ulertzen dira ondoen eta).

1. *Konparazio bidezko esapideak*

Solaseko norbaiten ezaugarri bat edo egoera bat era enfatikoan adierazteko, jakina da konparazioak erabiltzen direla sarritan. Besterik gabe, era neutroan, izenondo arrunt baten bidez, pertsona horren ezaugarri hori eman beharrean, konparazio enfatiko bat egiten da, eta hala, berebi-

⁵ Tesi-defentsarako prestatu nuen tesiaren kopian, «Esaerak, esapideak eta interjekzioak» izenburupean jaso nituen; geroago etorri zen argitalpenean, berriz (ikus Makazaga 2010), «Ahozko hizkeraren ezaugarri batzuk» izenburua eman nion.

ziko indarra hartzen du deskribapenak, bai eta, asko erabiliak ez diren kasuetan, asmatuak diren konparazioetan, grazia ere.

Hona halakoen erakusgarri batzuk⁶:

- *Zorria baino alferragoa da Joxe.*
- *Ezpala baino argalago geratu da aita, gaixo egon eta gero.*
- *Txoria baino arinagoa da ume hori.*
- *Ardi galdua bezala dabil, beti bakar-bakarrik.*
- *Uztarrian joateko modukoak dira lagun bi horiek, beti elkarrekin.*
- *Infernuko deabrua baino gaiztoagoa da mutil hori.*
- *Urrea baino finagoa dut alaba.*
- *Txita batek bezainbeste jaten du ume horrek.*
- *Txakurra eta katua bezala dabilza beti seme-alabak.*
- *Ume batek baino pena handiagoa hartu nuen Errealak galdu zuenean.*
- *Garizuma baino luzeagoa zen emakume hura.*
- *Beldurraren beldurrez, tximista baino azkarrago etorri zitzaigun umea.*
- *Telarik gabeko aterkia baino argalagoa da mutil hori.⁷*

2. Galdera erretorikoak

Gure diskurtsoan erabiltzen dugun beste baliabide bat da. Galdera erretorikoetan, dabilgun bezala, ez dugu mintzakidearen erantzunik espero; beharbada berrespen txiki bat bai, baina, jaso ditudan kasuetan, batez ere diskurtsoa antolatzeke baliabide bat da, diskurtsoaren erritmoa antolatzeke, diskurtsoaren harian, dena asertzio bidez eman beharrean, bariazio estilistikoa egiteko.

Hona adibide batzuk:

- *Eta bazen, ba, aldeko mutila? Gero, joan zen Santaeske egunean gerrara.*
- *Zapatak apurtu samartuta zeuzkan. Eta zer egin zuen? Brigadari eskatu berriak.*
- *Eskolan, baserritarrek ere, zer? Neguan sei bat hilabete egin, eta gero lanera.*
- *Zer da, eta azkenean zigorra maisuak!*
- *Zein etorriko, eta etsairik gaiztoena!*

3. Onomatopeiak

Ahozko jardunean, hitzean eta hortzean erabiltzen dira gure inguruan entzuten ditugun hotsak imitatzeke erabiltzen diren berba hauek, bai adinekoen hizkuntzan, bai umeenean ere. Ekintza komunikatiboan, esaten duguna era zuzenagoan, argigarriagoan, ilustratiboagoan adierazteko balio dute berba hauek.

⁶ Lan honetan, euskara batuko forman eman ditut Elgoibarren batutako ezaugarri hauek.

⁷ Nire berri-emaileetako batek asmatutako konparazioa.

Hona Elgoibarren entzun ditudan onomatopeia batzuk:

- *Bolo-bolo dabil herrian txutxumutxu hori.*
- *Kalamua [mendia]n geratu ziren, eta sei hilabetean hortxe, dinbi eta danba, bazter guztiak garbitzen [bonbak].*
- *Hori zen ardoa erraz edatea, dzanga-dzanga!*
- *Barra-barra erdaraz kaletarrak.*
- *Amarekin joaten ginen bost lagun edo. Koxkorrak denak, ttiki-ttaka, ttiki-ttaka, txarrikumeak amaren ondoan bezalaxe joaten ginen.*
- *Haien artean beti erdaraz. Euskara ahaztu! Eskoletan laga ez, eta gero kalera joan, eta tto-tto-tto, dena erdaraz.*
- *Belarretan, ras-ras-ras garbitzen genituen zapatak [erromeriara iristean].*
- *Ri-ra egin dugu dena, hasi eta amaitu egun batean.*

4. Elipsia

Elipsiarena da ahozko jardunaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat; komunikazio dinamikoa, biziagoa eta naturalagoa lortzen da, zalantzarik gabe, jakintzat ematen den zenbait informazio isilduz; kontakizunak egitean, elipsiaren bidez asko irabazten du gure jardunak erritmoan. Aditzaren elipsia da ohikoena: aditz laguntzailearena, edo, are, aditz osoarena ere bai.

Hona adibide batzuk (kakatx artean jarri dut eliditutako parteak):

- *Amak arrazoia: jakina, liburu asko behar [ziren].*
- *Zintzoak izango zineten? - Horixe! Duda [egiten duzu]?*
- *Bueno, martxan zagoz grabagailua, ala ez? - Bai, aspalditik. - Adarrik ez [iezadak jo]!*
- *Hogeita hamabostean ezkondu [ginen], eta hogeita hamaseian gerra [piztu zen].*
- *Eta gero, txarren-txarrena zen, zera, biderik ez [zegoela] baserrietara.*
- *Laga ez [zien] hark neskak eramaten; bestela, eramango zituzten neskak ere frentera.*
- *Umeak laga [zituzten] gurasoekin, eta pixka bat haiek deskantsatu egin behar zutela, eta etorri [ziren].*
- *Euskaraz ezin [genuen] egin, eta erdaraz, jakin ez [genekien]: haiek ziren komeriak!*
- *Dirurik ez, eta zegoenarekin konformatu behar [izaten genuen] ...*

5. Errepikapenak

Ahozko jardunean erruz erabiltzen dira errepikapenak ere, zerbaiti enfasi edo indar berezia eman nahian edo: errepikapen indargarriak dira, osagai baten gainean enfasi berezia egin nahi dugun kasuetan erabiltzen direnak. Errepikatzen den osagaia edozer kategoria gramatikaletakoa izan daiteke: batzuetan, erakusleren bat izan daiteke; beste batzuetan, izenondoa, aditza edo perpausa bera ere bai.

Hona Elgoibarko jardunetik bildutako adibide batzuk:

- *Hori duk marka, hori!*
- *Hura zen ona, hura!*

- *Hi bizi haiz, hi!*
- *Andres ume txiki-txikia zen.*
- *Egunero bi buelta ematen ditu gizon horrek. Ordu-orduan, gainera.*
- *Bai, askotan etortzen dira. Beti-beti ez dira etortzen, baina askotan bai.*
- *Lotsagabeagoa zen, lotsagabeagoa...*

Errepikapenak hirukoitzak ere izan daitezke, indar handiagoa emateko:

- *Ur zuri-zuri-zuria ikusten da, gainera, garbi-garbi-garbia barruan.*
- *Isil-isil-isilik etxera orduantxe.*

Perpausak eta sintagmak ere errepika daitezke; halakoetan, bariazioagatik, oso ohikoa da hurrenkera-aldaketa gitea perpaus edo sintagma batetik bestera:

- *Gerra da azkena! Azkena da gerra, e!*
- *Aste Santuan eta, [jende] gaztea dena, dena gaztea.*

6. Kontakizunetako betegarriak eta makuluak

Ahozko jardunean arruntak dira isiluneak: hitz bat ez zaigunean gogora etortzen, esaterako. Isilune horiek betetzeko, makuluak edo betegarriak ditu eskura ahoz ari den hiztunak, harik eta etortzen ez zaigun hitz hori ahora etorri arte. Txantxa moduko esaldi hau da horren adierazgarri muturrekoa:

- *Zereko zera zertu da zerarekin zerean.*

Ekar ditzagun hori baino adibide errealago batzuk:

- *San Migel, hemen inguruetan dagoen zerik ederrena dago [auzorik].*
- *Ezin, ba, joan zerera... oporretara.*
- *Andre bat dago hemen, Zestoakoa da izatez, baina hor zerean bizi da, Markinan.*

7. Ezezko formen ugaritasuna

Nabarmena da ezeztapenaren erabilera joria ahozko jardunean. Gertaera eta deskribapen asko eta asko adierazten dira ezezko forman, era markatuan adierazi ere; horretarako, esan nahi denaren kontrakoa ezezko forman jarri besterik ez da egin behar:

- *Ez duk berehalakoan etorri!*
- *Gerraren berri baldin badakik, ez haiz gaur goizekoa.*
- *Asko maite du anaia. Ez dauka, ez, saltzeko.*
- *Eskapada ederra egin dugu autoarekin: ibaira joan ez garenean!*
- *Triste egongo da, ba, lana galduta? – Ez dakizu asko!*
- *Pakita hil da. – Ez da egia izango!*

Ezeztapenen barruan, bada beste mota bat, ugaria hau ere; eta bitxia, zeren eta horrelakoetan gauza bat adierazteko literalki haren kontrakoa esaten baitugu: ukapenak dira (ezezko formak), baina baiezko adiera dute; ez dira, hortaz, literalki hartu behar, zentzu ironikoan baizik, hitzez hitz esaten denaren kontrako zentzuan.

- *Esan diot gehiago ez molestatzeko.* — *Ez alferrik!*
- *Txerrikeria eta ustelkeria nagusi da gaur egun.* *Ez da giro bazterretan!*
- *Telebistako euskara ulertzen duzue?* — *Ulertuko ez dugu, ba!*
- *Ikasi, zeozter ikasten zenuten eskolan?* — *Baaai! Ikasiko ez genuen, ba!*
- *Eta nongoa nintzen ez dit, ba, galdetu artaburu honek!?* *Jakin behar zuen!*
- *Donostiako Semana Grande-ri ez zaio esaten* Aste Nagusia?

8. Hitz-ordena berezia

Atal honetan hizpide dudan gaiak ere azterketa sakonak ekarri ditu eta ekarriko ditu oraindik ere. Ur sakonegietan sartu gabe, hitz-ordena markatuaren adierazgarritasun-ahalmena aipatu besterik ez orain. Hanpatu edo markatu nahi den osagaia era jakin batean markatu nahi izaten da ahozko mintzamolde adierazgarrietan. Horretarako, aditzaren aurreko kokalekua edo, mintzagai hanpatuaren kasuan, perpaus hasiera izaten dira indar berezi hori markatzeko guneak.

Kasu hauetan, lehenbizi garrantzitsuagoa den informazioa ematen da, eta gero bigarren mailakoa. Adibideen eskuin aldean, kakotx artean, ordena neutroa zein litzatekeen adierazi dut.

- *Orain badaukazue ganadurik?* — *Ardiak orain.* [Orain ardiak (dauzkagu)]
- *Eta gero beste gauza bat zen: garoa mendian.* [Mendian garoa (egoten zen)]
- *Zer ganadu daukazu?* *Ahuntzak, hiru. Astoa, bat. Behorrak, bi.* [Hiru ahuntz; Asto bat. Bi behor]
- *Joango gaituk kalera?* *Ez oraindik!* [Oraindik ez (gaituk joango kalera)]

Oro har, esan daiteke hitz-ordena malgu samarra aurkitzen dugula ahozko jardunean, mezua jasotzeko moduak (ahoz eman eta belariz jaso) baldintzatuta, neurri handi batean. Kontua da oso ugaria dela esaldiaren pisua aurrera ekartzea, adibidez, aditza (esaldiaren antolatzailea) aurrean ematea. Nahi adina adibide aurkituko ditugu edozein testu ahozkotan. Hona hemen batzuk:

- *Sukaldaria ere zen Hondarribikoa.*
- *Orduan hori zen sakratua.*
- *Orain batzuek egiten dute ezkondu hemendik kanpora.*

Galdegaia aurreratzeko estrategien artean, egitura kataforikoena dugu ahozko jardunean nahi-kotxo erabiltzen dena:

- *Futbolari gauza bat ikusten diot nik txarra: kanpoko jendea ekartzen dute.*
- *Hor ere (gurasoak kanpoan lanean) problema txarra dago: familia apurtuta geratzen da.*
- *Beste batean pasatu zen polita: (...)*
- *Eta, akordatzen naiz detailea: zeuden denak militarrek, batzuek ez zeukaten ihesbiderik, haiek fusilatu egingo zituzten seguru.*

Azkenik, deiktikoen erabilera bat aipatu nahi nuke: lehendabizi deiktikoa erabiltzea elkarrizketakideak kokatzeko, eta horren ostean kokapen hori mugatzea, zehaztea. Hona, adibidez, hauek:

- *Santa Luzietan egiten dira horiek. Eta gero, hemen Markinan ere bai, eta hor Elorrion ere bai.*
- *Hemen irratian, ba, Arrate [irratia] ipintzen dugu.*
- *(...) beharbada bidea ebakiko dute hor Urkaregin, eta ezin pasatuko naiz Markinara; hor beharbada Alzola aldetik igo eta irits daitezke hona Urkaregira.*

9. *Hasiera-markatzailea duten mendeko perpausak*

Ahozko jardunean erabiltzen diren mendeko perpausen artean, deskodetzen errazena dira nagusi. Arreta berezia merezi dute mendekoaren aurreko buruan markatzaile sintaktikoren bat dutenek: perpaus mendekoaren hasiera-hasieratik hura zer eratakoa den iragartzen digutenak dira.

Jaso ditzagun hemen adibide batzuk:

- *Esaten jardun zuten eze hura egiteko berrogeita bi milioi arbola kendu zituztela.*
- *Harik eta etxeko lan denak amaitu arte, ez ginen oheratzen.*
- *Lo egiten dut, baina esna ere asko. Nik, behin goizeko hirurak ezer, gau oso bat ez dut egin lo.*
- *Ez zen komeni han gelditzerik, zergatik eze berriaz ere beste tiro bat edo igual ailegatuko zen.*
- *Ba, zure ama eta aita nola San Lorentzokoak diren biak, ba, guk erabili dugun euskara berdina da.*

10. *Estilo zuzena*

Etengabea da estilo zuzenaren presentzia ahozko testu lagunartekoetan, hauetan gertaerak eta elkarrizketak kontatzea oso arrunta baita. Estilo zuzena erabiltzen da bai beste pertsona baten hitzak jasotzeko, bai berri-emailearenak berarenak (bere buruari esaten dizkionak) jasotzeko ere. Hona adibide batzuk:

- *Nik aitari galdera: «Aita, han hola eta hola badago, ba, txabola bat? (...)».*
- *Hala esan nion neure buruari: «Ez hadi negozio horretan sartu!».*
- *Eta neure artean: «Hau duk pagotxa, hau!».*
- *Esan nuen: «Hau nola ordaintzen dute?».*

11. *Mailegutza berezia*

Hitz mailegatu batzuk erabilera adierazgarrian bakarrik entzuten dira; erabilera neutroan ez dute lekurik, Elgoibarko euskararen bederen (adibideen eskuin aldean, barra etzanaren eskuin aldean, adierazi nahi izan dut ezinezkoa dela erabilera neutro hori)⁸:

⁸ Kasu berezi honetan, Elgoibarko eran jaso ditut adibideak, euskara batuan oso bitxiak geratuko lirakeelako hitz hauen erabilera bereziak.

- *Lehen grandia zuan motorra edukitzia, gero, e!* / **Etxe grandia erosi dot.*
- *Hik dakak, hik, sanidadia, Patxi! Ordu bixetan Bilbon egon bihar, eta ordu bat t'erdietan Elgoibarren hago!* / **Sanidade [osasun] ona dauka Inaziok.*
- *Han espezial ibili nitzuan!* / ?*Gizon espeziala da hori.*
- *Terriblia haiz, Inazio!* / ?*Gertaera terriblia (beldurgarria).*
- *Hori da printzipalena.* / ?*Kamiño printzipala hartu bihar dozu.*
- *Kantidadia etortzen zittuan Eibartik fubolera!* / ?*Jende kantidade egokixa etorri da.*

12. Esaerak

Idea bat garatu ondoren, kontakizun bat burutu ondoren, amaieran laburpenak egitea, kontatu dena irudi batekin deskribatzea modu egokia da entzulearekiko komunikazioa bermatzeko, esan nahi duguna entzuleari hobeto ulertarazteko eta gogorarazteko, esan nahi dena gogoangarri egiteko: ondorioak ateratzea, esaldi edo esapide egin batekin nahiz esaera batekin amaitzea. Gauza bera gertatzen da gertakizun bat kontatu edo zerbait deskribatu nahi denean ere: orduan ere oso ondo etor dakiok hiztunari esaera edo esapide egoki-egoki bat, mintzakideari begi aurrean argazki bat jartzeak sortzen dion eragina sor dezakeena. Eguneroko bizitzako elementuei egiten zaie erreferentzia, eta oso ugariak dira baliabide metaforikoak eta konparazio bidezkoak.

Ahozko jardunean askotan erabiltzen den estrategia da.⁹

- *Urte batzuetan ibili nintzen lanean neure kontura; gero, anaiaren bitartez hasi nintzen haren tailerrean: kanpoan hotz egiten zuen.*
- *Batera eta bestera ibili zen neskalgun bila, baina ezin egokia bilatu; ezin inorekin konformatu. Azkenean, on bila, on bila, bonbilla!*
- *Mendaroko gazte batek bota zuen bertso «berde» hori. - Bai ba, sasoiaren gereziak!*
- *Ezin izan dut asteburuan lana amaitu: azkar eta ondo, usoak hegan.*
- *Beti dabilta elkarrekin: hara zer pareta, karakola eta bareta!*
- *Kanpokoekin ondo geratzea gustatzen zaio: kanpolarrosa samarra da hori.*
- *Kalean beste aurpegi bat darabil emakume horrek: kalean uso, etxean otso.*

13. Interjekzioak

Batzuetan, aurretik esan dena berresteko balio dute interjekzioek:

- *Pagatu behar zen dantzan egiteko?! — Erregular!*
- *Ondo bizi zinen zu, e! — Bai, horixe!*
- *Lagunduko didak etxea garbitzen? — Akabo ba!*
- *Aurten ere negua hotza dator. — Larri ibili!*
- *Gustatzen zaizu baserriko lana? — Beharko! Nora joango naiz, bestela?*
- *Aurten ere Kanarietara joango haiz oportetara? — Bienke!*

⁹ Hona Ong-en hitzak: «Las fórmulas ayudan a aplicar el discurso rítmico y también sirven de recurso mnemotécnico, por derecho propio, con expresiones fijas que circulan de boca en boca y de oído en oído: *Divide y vencerás*, *Fuerte como un roble*. Las expresiones fijas (...) en las culturas orales no son ocasionales. Son incansables. El pensamiento, en cualquier manifestación extensa, es imposible sin ellas, pues en ellas consiste.».

Beste batzuetan, berriz, aurretik esan dena ukatzeko erabiltzen dira:

- *Zahartu egin zara. — Ezta gutxiagorik ere! Ni txabalittoa sentitzen naiz.*
- *Gorospe izan da bizkaitar txirrindularirik onena. — Adarrik ez!*
- *Laster ezkonduko haiz, ezta? — Bai, zera!*

Norbait agurtzerakoan, norberaren egoeraren berri emateko balio dute beste batzuek:

- *Zer moduz zaude? — Oso ondo: ni baino hobeto dagoena ez dago gaiarki!*
- *Zer moduz zaude? — Oso ondo: hobeto, nahi ere ez!*
- *Zer moduz bizi haiz? — Espezial!*
- *Zer moduz zaude? — Ondo edo, ondo ustean.*
- *Zer, ondo? — Ondo edo, ondo nahian.*
- *Aspaldiko! Zer moduz zabilza? — Hainbestean!*
- *Zer moduz zabilza? — Ez hain ondo, denaren beharrean.*
- *Zer moduz zara? — Nahi eta ezinean, emakumea!*

Lokailu bidezko egitura adierazgarriak ere erabiltzen dira. Presuposizio-kontuetan, berezi-berezia da *ere*, eta indar berezia ematen dio gure jardunari: berehalako erantzunen, interjekzioen arlo honetan, beraz, aukera egokia ematen du gure erantzunei eta esamoldeei adierazgarritasuna emateko. Hona adibide batzuk:

- *Laster ezkonduko haiz, ezta? — Baita zera ere!*
- *Hartu genuen erabakia. — Bai azkar hartu ere!*
- *Egun on! — Bai zeuri ere!*
- *Egun on! — Baita zeuri ere!*
- *Ez zarete alferrik galduko zuek! — Ezta komeni ere!*

14. Barren

Azkenik, Elgoibarren berezkoa den *barren* lokailua izango dugu hizpide. Berezia delako gure herritarrontzat egin diot atal berezi bat. Egitura adierazgarrietan izaten du berezko lekua, eta primeran datorkigu Elgoibarkoa eta inguru hurbilekoa bakarrik den hitz honen erabileraren berri emateko. Hona adibide batzuk:

- *Eta Patxi? — Zein Patxi?! Adarrik ez duk jo behar: Patxi ni lanean nenbilenean hil zuan, barren!¹⁰*
- *Umeek ez daukate, barren, inon jolasean egiteko lekurik!*
- *Eta gero, plazara joaten direnean, «garestia» esaten dute [barazkia]. Ez, jauna! Haiiek ez dakite, barren, zer den baserriko lana!*

¹⁰ *Barren* lokailua Elgoibarren eta inguruko herri gutxi batzuetan bakarrik erabiltzen da; *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III (Lokailuak)* liburukian (ikus 131 or.), Gramatika batzordeak aurkaritzakoen artean sailkatu zuen. Berez markatuak diren perpausetan erabiltzen da batez ere, harridura-edo adierazteko. Haren esanahia ulertzeko, *baina* edo *eta* erabil daitezke haren ordean, kasuan-kasuan. Elgoibarko Izarra euskara elkarteak astero argitaratzen duen euskarazko herri-astekariak ere *Barren* du izena.

Bibliografia

- Alcoba, Santiago (coord.) (1999): *La oralización*. Barcelona: Ariel.
- Amonarriz, Kike (1998): «Euskarazko umorea eta hizkera erakargarria», in Rodríguez, Fito & Esnaola, Imanol (ed.), *Euskara mintzatuaren erronkak*. Leioa: EHU.
- Beinhauer, Werner (1929): *El español coloquial*. Madrid. Gredos.
- Briz, Antonio (1996): *El español coloquial: situación y uso*. Madrid. Arco.
- Elxepuru, Juan Martín (2005): *Bergara aldeko hiztegia. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbe-kin osotuta*, Bergarako Udala.
- Esnaola, P. (1987-1989): «Ahozko euskarari buruz», Euskararen Kutxa atalean argitaratutako artikulu-sorta, *HABE*.
- Euskaltzaindia (1990): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III (Lokailuak)*. Bilbo.
- Garate, Gotzon (1988): *Erdarakadak*. Mensajero.
- (1998): *27.173 Atsotitzak. Refranes. Proverbs. Proverbia*. Bilbo. BBK.
- Garzia, Joxerra (1998): «Hedabideetako euskara mintzatua», in F. Rodríguez & I. Esnaola (arg.), *Euskara mintzatuaren erronkak*. Bilbo. UPV/EHU.
- (1999): *Gaur egungo bertsolariaren baliabide poetiko-erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa*. Leioa: EHU/doktore tesiak.
- (2008): *Jendaurrean hizlari. (Ahozko) Komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua*. Alberdania.
- Ibarretxe, Iraide (2006): *Euskal onomatopeien hiztegia. Euskara-Ingelesera-Gaztelania* [Diccionario de onomatopeyas vascas. Euskara-Inglés-Español]. Donostia. Gaiak.
- Izagirre, Koldo (1981): *Euskal lokuzioak*. Hordago.
- Laspiur, Imanol (1999): *Eibarrera jatorraren bidetik*. Eibar. *Eta kitto!* Euskara elkarte.
- Lassaletta, M.C. (1974): *Aportaciones al estudio del lenguaje coloquial galdosiano, etc.* Insula Madrid.
- León, Jabi (2004): *Elgoibartarren esanetan*. Elgoibar. Elgoibarko Udala.
- Makazaga, Jesus Mari (2006): «Non dago ahozko jardunaren adierazgarritasuna? Erakusgarri batzuk Elgoibarko euskaratik», in B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, 663-678. UPV/EHU.
- (2008): «Ahozko jarduna komunikazioaren lagungarri: ekarpen bat ahozkoaren estrategia komunikatiboez», in (X. Artiagoitia & J.A. Lakarra arg.) *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez*, 545-560. UPV/EHU.
- (2010): *Elgoibarko ahozko euskara*. IKER-25. Euskaltzaindia-UPV/EHU.
- Mendebalde Euskera Alkartia (2003): *Ahokotasuna aztergai*. Bilbo. BBK.
- Mokoroa, Justo M. (1990): *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Bilbao: Labayru / Eusko Jaurlaritza. Etor.
- Ong, W. J. (1987): *Oralidad y escritura*. Mexico. Edit. Fondo de Cultura Económica.
- Osa, Eusebio (1990): *Euskararen hitzordena, komunikazio zereginen arauera*. Leioa. EHU-ren Argitarapen Zerbitzua.
- Plazaola, Estepan, Agirregabiria, Karmele & Bikuña, Karmen (2005): *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak*. Badihardugu Euskara Elkarte.
- Salaburu, Pello (1984): *Hizkuntza teoria eta Baztango euskalkia* (2 liburuki). Leioa. EHU.
- (2005): *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Nafarroako Gobernua-Euskaltzaindia.
- San Martín, Juan (1960): *Zirikadak*. Berrargitaratua: Elkar (1984).
- (1967): *Ibiltarixanak*. Ego ibarra (1993). Kutxa.